ASMOZ TA JAKITEZ

221
APIRILA ABRIL AVRIL 2011

ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA

## Audiencia en el Palacio de La Zarzuela


Borja Fotógrafos

Dentro del programa de encuentros que la Presidencia de Eusko Ikaskuntza está manteniendo con instituciones e instancias que a lo largo de sus 93 años de existencia han hecho posible su labor, el 24 de marzo en el Palacio de la Zarzuela de Madrid una representación del Comité Ejecutivo de Eusko Ikaskuntza encabezada por su Presidente, José María Muñoa y compuesta por los Vicepresidentes de Álava, Federico Verástegui, e Ipar Euskal Herria, Jean-Michel Larrasquet, el Secretario, Gorka Landaburu, y el Socio de Honor Imanol Olaizaola, fue recibida en audiencia por el rey don Juan Carlos.

En su exposición, Muñoa hizo repaso de la trayectoria de Eusko Ikaskuntza desde su creación en 1918 como herramienta para la promoción de la cultura y la ciencia vascas, hasta sus ámbitos actuales de actuación y los principales proyectos que tiene en marcha. El Presidente puso el acento en el papel de entidades como Eusko Ikaskuntza "que surgiendo del seno de la sociedad civil aúnan fuerzas contra la atomización de las respuestas sociales y tienen sus miras puestas más allá del cortoplacismo y el tacticismo que demasiadas veces determinan y constriñen la toma de decisiones más trascendentales".

También tuvo palabras de agradecimiento hacia las "instituciones que nos han ayudado y nos ayudan a vivir y, en los peores momentos, incluso a sobrevivir. Es decir, las Diputaciones de Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra, que nos crearon. El Gobierno Vasco, que ya desde el largo y doloroso paréntesis de la dictadura dio respaldo a nuestros dos Congresos celebrados en el exilio". Y, ya en los últimos años, el Gobierno de España "que a través del Ministerio de Educación viene puntuando a Eusko Ikaskuntza entre las entidades de mayor eficiencia en el buen aprovechamiento de sus recursos, y como consecuencia ofreciendo cobertura a su labor".

José María Muñoa manifestó su deseo de que en el horizonte de su centenario Eusko Ikaskuntza siga contando con el respaldo de todas esas instituciones que sostienen su actividad a favor del progreso social y cultural de las comunidades vascas.

## Gazteak, parte hartzeako prest

El programa Datorkigunea, impulsado por el Departamento de Juventud de Eusko Ikaskuntza, con apoyo de las Diputaciones Forales de Gipuzkoa y Alava y el Gobierno Vasco, arroja sus primeros resultados



Martxoaren 30ean, Donostian, Datorkigunea programaren lehen fasearen emaitzak aurkeztu ziren. Datorkigunea Eusko Ikaskuntzaren Gazteria Departamentuaren ekimenez abian jarri zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren babespean. Euskal gazteriaren ikuspegitik gizarte erronka handiei buruzko gogoeta eta eztabaida sustatzea da Datorkigunearen helburua.

Joan den irailetik, Euskal Herriko zazpi lurraldeetako berrogei gaztek "Gazteen parte hartzea, bide berrien bila" gaiari buruz lan egin dute, pertsona akademiko garrantzitsuek osaturiko Aholku Batzordearen gainbegiratzearekin. Gizarte, ekonomia, politika eta kultura arloetan gazteriak duen partaidetza mailaren analisi eta diagnostikotik abiaturik, erakundeei, gizarteari eta euskal gazteriari berari zuzenduriko dokumentu bat diseinatu dute. Proposamen zehatzez osaturiko dokumentu hau edonoren eskumenean dago helbide honetan: http://eigazte.eusko-ikaskuntza.org/datorkigunea.

Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako arduradunek azaldu zutenez, etorkizuneko jokalekuen diseinuan gazteen ahotsa kontuan hartua izatea da helburu komuna. Zehazkiago, Datorkigunearen ondorioek gaur idazten ari den Gazteriaren Euskal Legea hornitzea aurreikusia dago.

Aldi berean, dagoeneko abiarazi da programaren bigarren fasea, gazteriaren arazo bereziei buruzkoa. Gogoeta hau bi zatitan gauzatuko da: lehenengoan etxebizitzaren arazoak bilduko du arreta, eta bigarrenean langabeziak.

Prentsaurrekoan Amaia Nausia Pimoulier, Eusko Ikaskuntzako Gazteria Sailekoa; Teresa del Valle, Eusko Ikaskuntzako Gipuzkoako Lehendakariordea; Natxo Rodriguez, Eusko Jaurlaritzako Gazteriako Zuzendaria; Jose Ignacio Insausti, Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur eta Gazteen Zuzendari Nagusia; Jon Jimenez Macuso eta Iasmina Gorroño, proiektuan parte hartzaileak egon ziren.

## Erakunde Bizitza




(1)

### Eragilea eta Iraunkorra

Martxoaren 17an, Eusko Ikaskuntzako Batzorde Eragilearen eta Batzorde Iraunkorraren ohiko bilerak hartu zituen Baionako egoitzak. Bilera honetan bilduriko beste gai batzuen artean, Batzorde Eragileak Arabako Aldundiak berriki onarturiko Foru Arauren berri izan zuen, hori dela medio Eusko Ikaskuntza aholku erakunde nagusitzat hartzen dute arabar udalerrien izen aldaketa, hiriburutza, armarri eta beste elementu bereizgarriei buruzko proposamenei dagokien guztian. Batzorde Iraunkorrak, bere aldetik, 2011ko aurrekontuak onartu zituen, 2010 urtekoekiko kontinuistak direnak.

### Assemblée Générale

C'est en présence de Jose Maria Muñoa, président d'Eusko Ikaskuntza et de Gaxuxa Elhorga-Dargains, déléguée à la langue basque et à la culture basque de la ville de Saint-Jean-de-Luz, qu'une trentaine de personnes se sont réunies le 19 mars à Senpere pour célébrer l'Assemblée Générale annuelle de Eusko Ikaskuntza de Iparralde. Jean-Michel Larrasquet a fait le rapport des activités réalisées dans le courant de l'année 2010 (deux colloques, un salon du livre, un cours public, quatorze conférences, dix bourses d'études, quatre prix).

Jean Claude Larronde, trésorier, a présenté les comptes 2010 et le budget prévisionnel pour 2011. Les deux rapports ont été adoptés à l'unanimité.

En ce qui concerne les projets 2011, plusieurs thèmes ont été abordés.

Après un vote à main levée le tiers sortant a été réélu: Jean-Baptiste Coyos, François-Xabier Cuende, Maite Lafourcade, Claude Mehats.

### Bizkaiko Aholku Batzordea

Martxoaren 23an Bizkaiko Aholku Batzordea bildu zen, Marta Ajuria, lurraldeko Lehendakariordeak deiturik. Elkartearen jarduerarekin loturiko hainbat gairi heldu zieten, hala nola Manuel Lekuona Saria Jose Antonio Arana Martijari emateko ekitaldia, laster egitekoa Bizkaiko Aldundian, eta Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa Saria.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak igorritako gutun bat irakurri zen. Haren bidez ezezkoa ematen zitzaion Batzordeak Bermeoko Kurtzio-Zarragoitxi Erromatar Aroko-Erdi Aroko multzoa babesteko egindako eskaerari. Horrek guztiak eztabaida interesgarri bat eragin zuen.

### Batzar Nagusia

Eusko Ikaskuntzaren urteko Batzar Nagusia (1) maiatzaren 27an, ostirala, 18:00etan egingo da Donostiako Miramar Jauregian. Bertan onartuko dira, hala badagokie, aurreko ohiko batzarraren akta, 2010eko jarduera txostena eta ekitaldi horretako Balantzea eta Emaitzen Kontua. Orobat, aurreikusitako Emaitzen banaketa aurkeztuko zaie bazkideei, berek onar dezaten, hala badagokio. Jose Maria Muñoa, erakundeko Lehendakariak bere urteko txostena jakitera emango du. Azkenik, galde-eskarien aldian bazkideek hitza hartzeko aukera izango dute.

### Curso de formación

A lo largo de las dos últimas semanas del mes de marzo, se han impartido diversas acciones formativas a la plantilla laboral de la Sociedad, al objeto de dar respuesta a las necesidades expresadas respecto a la relación de empleados con socios, colaboradores y clientes. Como profesorado, el curso ha contado con Mamen Antón Remirez y Juan Ignacio Sagüés Lacasa, consultores y formadores de AIN Recursos Humanos.

## Bekak

### Becas institucionales: redefinición



Angel Apraiz

Tras el proceso de análisis y reflexión llevado a cabo por el área de Actividad Científica y refrendado por la Comisión Académica, la oferta de becas institucionales de Eusko Ikaskuntza va a experimentar diversas modificaciones en aras a cumplir con cinco objetivos: Responder al objeto y características de la Sociedad según Estatutos y Plan Estratégico; mejorar su posicionamiento en el ámbito del fomento y formación en investigación en Ciencias Sociales; consolidar relaciones con las Universidades de su ámbito territorial; diseñar un proyecto de acción para el fomento y formación en investigación de Ciencias Sociales; y adecuar recursos.

De acuerdo con ello, se han determinado cuatro acciones:

1) Suprimir la Beca recíproca con el Institut d'Estudis Catalans.
2) Creación de una única Beca denominada Apraiz – Zumalabe, de convocatoria bienal, dirigida a equipos de jóvenes para la realización de un proyecto de investigación para ampliar el conocimiento sobre un objeto de estudio determinado y definido, en respuesta a necesidades detectadas por Eusko Ikaskuntza, y que permita al equipo becado completar su experiencia científica.
3) Redefinición de la Beca Arturo Campión, que dará continuidad a los discursos planteados en los Congresos de Estudios Vascos en forma de investigación teórica y/o aplicada, con dos años de duración y preferentemente en euskera.
4) Mantenimiento de la beca Hôte de Relations Internationals – Universidad de Ginebra.

Todas estas modificaciones se aplicarán a partir del presente ejercicio 2011.



Agustin Zumalabe

## Gazteria

Ei Gazte!

### Ecoeuskadi 2020

ecoeuskadi 2020 Euskadiko Garapen Jasangarrirako Estrategia

Durante los meses de marzo y abril, el Departamento de Juventud reúne a jóvenes de entre 18 y 32 años para participar en Ecoeuskadi 2020. Entendiendo que es imprescindible implicar a los jóvenes en las reflexiones de futuro sobre prosperidad económica, equidad, cohesión social y protección del medio ambiente, y utilizando la metodología participativa aplicada con éxito al programa Datorkigunea (ver página 1), Gazteria de Eusko Ikaskuntza coordina el grupo de juventud de Ecoeuskadi 2020.

Los resultados obtenidos se sumarán a los que se realicen desde otros ámbitos paralelos y culminará con la elaboración de una Estrategia de Desarrollo Sostenible de Euskadi para la presente década.

## Asmoz Fundazioa

### Monitores de deporte escolar



Los directores de Deportes de las Diputaciones de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, Román Berriozabal, Iñaki Mujika e Iñaki Ugarteburu, respectivamente, la Directora de Asmoz Fundazioa, Oihana Sanzberro, y el Técnico de Deportes de la Diputación de Gipuzkoa, Imanol Fernández de Larrinoa, presentaron el 30 de marzo en Donostia el primer curso de monitorado de deporte escolar en el que participarán 50 jóvenes del 4 de abril al 24 de junio. La superación de dicho curso será requisito mínimo para acceder al empleo como monitor de deporte escolar en un futuro próximo.

A partir del curso académico 2011-2012, se impartirá dicha formación a todo el alumnado interesado a través de la plataforma educativa on line de la Fundación Asmoz.

## Euskomedia fundazioa

### Auñamendi en 12 langues

Euskomedia a incorporé Google Translate à son service d'information culturelle (www.euskomedia.org). Ce service permet de traduire les articles de Auñamendi Eusko Entziklopedia à 10 langues, en plus des originales en euskera et en espagnol: allemand, arabe, catalan, chinois simplifié, français, galicien, anglais, italien, portugais et russe. Cette application constitue un nouveau pas dans le travail de développement de l'accès et la diffusion de contenus relatifs à la culture basque dans les plateformes numériques mené par Eusko Ikaskuntza depuis plus de trois lustres.

## Sariak

### EI-EK Saria

Curriculum vitae gailenari eman ohi zaion Eusko Ikaskuntza–Euskadiko Kutxaren 2011 Sarirako hautagaitzak jasotzeko epea zabaldu da. Giza, Gizarte, Kultura eta Arte Zientzien alorrean jardueran dauden kulturaren pertsona ospetsuek izango dute saria lortzeko aukera. Interesatuak berak edo unibertsitate, zientzia eta kultura erakundeek aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak, kontuan harturik hautagaiak bere obra osoaren bidez Euskal Herriko garapen kulturalari modu eraginkorrez lagundu behar izan diola. 20.000 euroko sari bakarra emango da. Apirilaren 30ean amaitzen da curriculumak aurkezteko epea.

## Jardunaldiak

### Conférences

Le cycle des conférences organisées par la Vice-présidence pour Alava au siège de Vitoria-Gasteiz a donné l'occasion de participer à deux intéressantes expositions durant le mois de mars. Le 8 Raúl López Romo, docteur en Histoire et spécialiste en mouvements sociaux, parla de "Les nouveaux mouvements sociaux en Pays Basque durant la Transition (1975-1980)". Et le 29 mars la psychologue sociale Susana Conejero présenta les résultats de sa recherche doctorale dans laquelle, à travers des entrevues réalisées en Euskadi et en Navarre, elle analyse les variables qui influent sur les prises de position face à la violence et au respect de questions telles que la tolérance et le pardon.

D'un autre côté, le 26 mars à Baiona Maité Lafourcade, Professeur émérite d'Histoire du Droit et Prix Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral 2006, prononça une conférence sur le thème "L'autonomie administrative d'Iparralde sous l'Ancien Régime".

### Hizkuntza ekologia, aztergai

20 urteko ibilbidea eta hizkuntza ekologia lotuko dituen topaketa antolatu du UEMAk, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak. Apirilaren 14ean, goizez, Azpeitiko Sanagustin aretoan bilduko dira adituak 20 urteotako ibilbidearen berri eman eta etorkizunerako UEMA zein izan daitekeen lantzeko. Bide horretan, lurralde euskaldunetan hizkuntza ekologiaren teoriaren planteamenduen eta ikasbideen aplikazioa aztertu nahi da. Hain justu, Eusko Ikaskuntzatik, Zuzenbide saileko Xabier Ezeizabarrenak *Hizkuntza ekologia eta udalerri euskaldunak: oinarri juridikoak* izeneko hitzaldia eskainiko du. Matrikula apirilaren 11ra arte dago zabalik.

Ekimen honetan, Eusko Ikaskuntza, Euskal Herriko Unibertsitatea, Soziolinguistika klusterra eta Donostia-Gipuzkoako Kutxak lagundu dute.

### Simposium sobre Bilbao

Ya se ha cerrado el programa del XV Simposium sobre Bilbao, que sobre el tema "Bilbao: Espacio, expansión y fronteras" tendrá lugar los días 3 y 4 de mayo en Bidebarrrieta Kulturgunea. En la primera jornada se presentarán once comunicaciones sobre un amplio abanico de temas: las relaciones de Bilbao con las anteiglesias vecinas, la defensa del Abra, la ría, el Bilbao del siglo XIX y la política urbana del XX... El 4 de mayo serán diez las comunicaciones entre las que habrá aportaciones sobre los espacios de cultura y ocio, los teatros y los cines, la criminalidad urbana, el Ensanche, la vida doméstica... En total, serán 23 los participantes que intervendrán en euskera, inglés y castellano.

### Folklore: baile al suelto

La Sección de Folklore convoca para los días 28 mayo y 4 junio en Eibar unas Jornadas de estudio sobre el baile al suelto (2). Están dirigidas preferentemente a los integrantes de colectivos de danza y folclore, profesores y monitores de Academias de danza, músicos que ejercen su actividad en el mundo de la danza e investigadores desde cualquier disciplina relacionada. Se tratará de llegar a un amplio público de forma sencilla y rigurosa. Las sesiones contaran como ponentes invitados con: José Ignazio Ansorena, Carlos Antonio Porro, Iñaki Irigoien, Carolina Ibor, Aingeru Berguices, Gustavo Couto, Josu Larrinaga, Marta Elola, Mª Pilar Barrios y Salvador Palomar. Habrá también espacio para comunicaciones libres.

### Ajuriaguerraren mendeurrena

Julian de Ajuriaguerra, munduan zehar ezaguturiko psikiatraren jaiotzaren mendeurrena dela eta, Eusko Ikaskuntza, hainbat erakunderen laguntzaz, "Ajuriaguerraren pentsamenduaren gaurkotasuna: gaixoaren ikuspegi globala" izenburuko Omenaldi Jardunaldiak prestatzen ari da, ekainaren 10ean eta 11n Bilbon eta Baionan egitekoak. Alderdi biografikoei zein intelektualei helduko dieten hainbat herrialdetako adituen parte hartzea aurreikusia dago. Ajuriaguerra doktoreak Psikiatriaren aurrerabideari egindako ekarpena analizatuko dute eta haren lanaren helburu izan ziren diziplinei buruzko eguneratzeari ekingo diote.

### Augustin Chaho

On fêtera en octobre prochain les 200 ans de la naissance d'Augustin Chaho. C'est pour cette occasion qu'aura lieu un colloque à Baiona le samedi 8 octobre. Lors de cet hommage, toutes les facettes de sa vie et de son œuvre seront envisagées: partisan enthousiaste des carlistes, défenseur opiniâtre de l'euskara, patriote basque visionnaire, mais aussi anticlérical, franc-maçon, républicain aux idées avancées, journaliste polémiste, écrivain prolifique doué d'une plume aussi acérée que brillante... Les communications seront en euskara ou en français. On admet des propositions jusqu'au 30 juin au siège d'Eusko Ikaskuntza de Bayonne.

(1)



AlhóndigaBilbao

(2)



Koro Muro

(3)



(4)



Jesús Alba, Oier Elorriaga

## Udalak

### Otxandio: Gerra Zibila

2009an, Eusko Ikaskuntzak eta Otxandioko Udalak beka bat eman zioten Zigor Olabarria Oleaga bazkideari *Gerra Zibila herrian* (3) gaiari buruzko ikerlana gauzatu zezan. Bekadunak, historialaria ere den Mikel Xabier Aizpururen zuzendaritzapean, azterlan zabala burutu du; 120 orritik gora eta 100 irudi baino gehiago dauzkan lan honek bai giza lekukotasunak nola artxibo eta bibliografia materialak biltzen ditu. Euskaraz idatzitako obra hau sei ataletan egituraturik dago, Errepublika garaitik gerraondoraino, tartean Otxandio eta haren eskualdea jo zuten gerra gertari gehienak biltzen dituela. Laster argitaratzekoa da Lankidetzan bilduman.

### Berriozar: Archivo

Dentro del convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Berriozar, se encargó al socio Pablo Orduna Portus un examen valorativo de los archivos del concejo de Berriozar y de la Cendea de Ansoain. Como resultado de ese empeño se ha presentado un informe que determina los documentos con valor histórico, analiza los fondos a nivel de relevancia histórica y antropológica, y ofrece diferentes sugerencias técnicas para su conservación y digitalización. Finalmente, el informe aconseja completar el trabajo con la valoración de los documentos relativos a Berriozar y la antigua cendea contenidos en los archivos General de Navarra y Diocesano de Pamplona.

### Orio: Monografia

Orion, martxoaren 7an, Antxon Aguirre Sorondoren *Orio, oro hori* izenburuko azterlan monografikoa aurkeztu zen. Udalarekiko lankidetza hitzarmenaren esparruan egindako ikerlana dugu. Izaera etno-historikoa duen liburu honek hainbat alderdi ukitzen ditu: alde ekonomiko eta sozialak, udal antolaketa, ondare historikoa eta artistikoa, erlijio bizitza, aisia eta Orioko tokiko tradizioak. Obrak, halaber, galeria biografikoa eta eranskin dokumental zabala dauzka. Aurkezpen ekitaldian, egileaz gainera, euskara teknikariak eta zinegotziak esku hartu zuten, departamendu hori argitalpen sustatzailea baitzen.

### Oiartzun: Transcripciones

En convenio con el Ayuntamiento de Oiartzun, en los últimos años se ha realizado un importante trabajo de transcripción de los documentos medievales de su Archivo Municipal a cargo de los socios Rosa Ayerbe, Iago Irijoa, José Ángel Lema y Ana San Miguel. El vaciado, que suma 1.850 páginas, se ha dividido en tres partes: I. Libro de estimaciones fiscales de vecinos y bienes raíces (1499-1520); II. Pleito de Ferrones (1328-1514); y III. documentos de 1501 a 1520. Se espera que el proyecto culmine en el futuro con la edición de los tres volúmenes en la colección Fuentes Documentales Medievales.



### Agurain: Congreso

Con motivo de celebrarse en 2006 los 750 años de la fundación de Salvatierra, Eusko Ikaskuntza y el Ayuntamiento organizaron un Congreso a fin de actualizar los conocimientos sobre la Historia, el Arte, la Lengua y la Literatura de Salvatierra/Agurain y la Llanada alavesa oriental. Ahora ven la luz las actas en un gran tomo editado por el propio Ayuntamiento, que fue presentado ante los medios de comunicación en Vitoria el 24 de marzo y al día siguiente en Agurain con presencia del Vicepresidente por Alava, Federico Verástegui, y los socios Iñaki Bazan y Felipe Pozuelo que participaron en la organización del Congreso.

### Ajangiz: Mapa

2008an, Jon Kortazar Billelabeitia bazkidea hautatua gertatu zen Bizkaiko Ajangiz (4) udalerriaren toponimia azterketa egiteko. Udalak lan horren emaitza argitaratu berri du, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz. Informazio gehiena Ajangizko auzo adindunen ahozko lekukotasunak bilduz lortu da. Euskaltzaindiak Mikel Gorrotxategiren bidez ikuskatu duen toponimo zerrenda honek ondokoak hartzen ditu: etxeak eta baserriak, lekuak, leku nagusiak, errekak eta iturriak, eta auzoak.

ASMOZ TA JAKITEZ

221

APIRILA ABRIL AVRIL 2011

## Argitalpenak







### Mediatika, 12

El nuevo número de los Cuadernos de Medios de Comunicación agrupa diversos estudios que han contado con ayudas a la investigación. Varios de ellos se ocupan sobre la información a través de las tecnologías digitales. También se abordan, entre otros temas, las agencias de comunicación vascas, la imagen de lo vasco en The New York Times o una experiencia de radiodifusión en Uruguay en los años 1930. Publicación digital pionera de Eusko Ikaskuntza, desde el año 2005 Mediatika se edita on line.

www.eusko-ikaskuntza.org/es/mediatika

### Osasunaz, 11

Sei lan aurkeztu dira. Hirutan, medikuntza-gaiak (adinekoen altuerari buruzko aurreikuspenak, leptinaren fisiologia-funtzioak eta anemia ferropenikoa) jorratu dira soilik, euskaraz. Bestalde, hiru lan, antropologia-sailak emandako ikerkuntza-laguntzei esker gauzatuak, argitarabat gabe zeuden. Era berean, hiru bibliografia-erreseina aurkezten dira. 2008. urtetik Osasunaz aldizkaria on line argitaratzen da.

www.eusko-ikaskuntza.org/eu/osasunaz

## Aurkezpenak

### Aurkezpena Tolosan



Juan Garmendia, etnografo, historialari eta Eusko Ikaskuntzako Ohorezko Bazkidearen azkeneko liburua aurkeztu zen martxoaren 25ean Tolosan. *Escaparate etno-histórico. Fondo de escritorio / Agerkari etno-historikoa. Nere paperetatik* izenburupean eduki askotako testuak biltzen dira, gehienbat argitarababeak, mende erdi baino gehiagoko ikerketa jardunbidearen emaitza. Nestor Basterretxea artistak irudiztatu du obra hau.

Aurkezpenean ondokoek esku hartu zuten: Jokin Bildarratz alkatea; Jonan Fernandez, Baketik Bake Zentroko Zuzendaria; Juan Ignacio de Uría, RSBAPkoa, eta Juan Aguirre, liburuaren hitzaurregilea. Jose M. Muñoa, Eusko Ikaskuntza Lehendakariak mezu bat igorri zuen, bertaraturiko jende ugariaren aurrean irakurri zena.

## Agenda

### Apirila / Abril / Avril

6: Gasteiz. *Gaurko Euskal Narratiba: Arantxa Urretabizkaia*

7: Gasteiz. Conferencia de Fco. Javier Iza-Goñola: *Las crisis económicas a lo largo de la Historia*

14: Donostia. Batzorde Eragilea / *Comité Ejecutivo*

14: Azpeitia. *Hizkuntza-ekologia eta lurralde euskaldunak* jardunaldiak




15: Hendaia. Pleno de Jakiunde

25: Sara. Biltzar des Écrivains



29: Baiona. Conférence de Francis Brumont: *Le bayonnais Jean de Chevery (vers 1495-1555) un des princes du pastel*

### Maiatza / Mayo / Mai

3-4: Bilbao. XV Symposium de Historia de Bilbao: Espacio, expansión y fronteras



5: Gasteiz. *Gaurko Euskal Narratiba*: Ur Apalategi



19: Donostia. Batzorde Eragilea / *Comité Ejecutivo*

27: Donostia. Bazkide Batzar Nagusia / *Asamblea General de Socios*



28: Eibar. *Dantza soltea* Jardunaldiak

28: Baiona. Piarres Ainciarten Hitzaldia: *Jansenismoa Baionan XVII. mendean*

### Ekaina / Junio / Juin

4: Eibar. Dantza soltea Jardunaldiak



10-11: Bilbao, Baiona. Homenaje a Julián de Ajuriaguerra en el centenario de su nacimiento



16: Gasteiz. Batzorde Eragilea, Batzorde Iraunkorra / *Comité Ejecutivo, Junta Permanente*



### Uztaila / Julio / Juillet

6-8: Plentzia. Plentziako Tokiko Historia IV. Jardunaldiak: 1868-1936



14: Donostia. Batzorde Eragilea / *Comité Ejecutivo*



23: Baiona. Conférence de Eric Dicharry: *L'anthropologie de la fête au Pays Basque*

www.eusko-ikaskuntza.org/eu/novedadesyagenda

**Argitaratzailea**
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA

**Secretaria de Publicaciones**
Eva Nieto

**Harpidetzak**
Asmoz ta jakitez etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:

**Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak**
Miramar Jauregia, Miraconcha, 48
20007 DONOSTIA
Tel. 943-310855
Fax 943-213956
ei-sev@eusko-ikaskuntza.org.

**Arabako Bulegoa**
General Alava, 5-1º
01005 GASTEIZ
Tel. 945-231552
Fax 945-148752
gasteiz@eusko-ikaskuntza.org.

**Bizkaiko Bulegoa**
Pº de Uribitarte, 10, planta baja
48009 BILBAO
Tel. 94-4425287
Fax 94-4414650
bilbo@eusko-ikaskuntza.org.

**Nafarroako Bulegoa**
Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D
31001 IRUÑEA
Tel. 948-222105
Fax 948-211737
iruna@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera 9:00-13:00 eta 15:30-17:30; ostirala, 9:00-13:00.

**Horario**
De lunes a jueves de 9:00-13:00 y de 15:30-17: 30; viernes de 9:00-13:00.

**Iparraldeko Bulegoa**
51 quai Jauréguiberry
64100 BAIONA
Tel. 559598290
Fax 559461844
baiona@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera: 8:30-12:00 eta 15:00-18:00. Ostirala: 8:00-12:00.

**Horaire**
Du lundi au jeudi: 8:30 à 12:00 et 15:00-18:00; vendredi de 8:00 à 12:00.

Argazkiak:
Eusko Ikaskuntzako Argazki Artxiboa, Euskomedia Fundazioa, Koro Muro, Ajuriaguerra familia, Borja Fotógrafos SL, Jesús Alba, Oier Elorriaga, Abertzaletasunaren Agiritegia eta AlhóndigaBilbao

L.G.: SS-1056/92. ISSN 1133-9861
Fotokonposaketa: Ipar S.L. (Donostia)
Inprimategia: Michelena a. g. Astigarraga